

## **ENPRESA BAT SORTUKO DUTEN EKINTZAILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA**

Enpresa abian jartzeko asmoa dutenei zuzenduta, Behargintzak BFAak homologatutako **30 orduko ikastaroa** eskainiko du **otsailaren 13tik 20ra**.

**Oinarrizko Enpresa Kudeaketa** ikastaroan honako gaiak landuko dira: ideiaren analisia eta balorazioa, negozio eredu desberdinak, izaera juridikoak, eraketa eta hastapen izapideak, *Marketing* tresnak, ekonomia eta finantza plana, zergak eta likidazioa, inbertsioen finantzaketa, diru-laguntzak, enpresaren gizarte-erantzukizuna eta teknologia berrien erabilera, etab.

Ikastaroa **semipresentziala** izango da.

Ikastaro hau BFAk ematen duen **ENPRESAK ABIAN JARTZEKO ETA SORTZEKO LAGUNTZA** eta **ENPRESEN TRANSMISIORAKO LAGUNTZA jasotzeko derrigorrezkoa** da.

Diru-laguntza honen onuradun izateko, besteak beste, ikastaroa egin behar izan duzu, langabezian, enplegu-hobetze egoeran, EEE edo ERTE baten eraginpean egon behar izan zara jarduera ekonomikoetan alta eman aurretik eta gutxienez 3 hilabete lehenago Bizkaian erroldatuta egon. (Enpresa transmisioan, langile batek hartzen badu negozioa, langabezian egotea ez da beharrezkoa izango).

Diru-laguntza 5.000 € eta 20.000 € artekoa izan daiteke, bazkide kopuruaren eta programaren arabera eta Behargintzan izapidetzen da.

Informazioa jasotzeko edota kurtsoan izena emateko:

Bermeoaldeko Behargintza

Zubiaur tar Kepa 26-28, 1

tel. 96 617 9190

[autoenplegua@bermeo.eus](mailto:autoenplegua@bermeo.eus)

